


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2020KO AZAROA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,3 jaitsi dira 2020ko azaroan

2020ko urriaren aldean salmentak % 3,9 murriztu dira

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneousetan, Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek urte arteko % 1,3ko jaitsiera izan dute 2020ko azaroan, prezio konstanteetan. Aurreko hilaren, 2020ko urriaren, aldean, urtaro-eraginik gabeko terminoetan salmentak % 3,9 murriztu dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek, azalera handietan eta elikadura-kate handietan, % 5,9ko urte arteko igoera izan dute; gainerako salgaiek, berriz, % 14,3ko jaitsiera izan dute aurreko urteko hil beraren aldean, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

2020ko urriaren aldean, eta urtaro-eraginik gabeko terminoetan, prezio konstanteetako elikagaien salmentak % 0,4 igo dira; gainerako produktuenak, berriz, % 12,8 jaitsi dira.

**Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Azaroa 2020 (p)**

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-1,3	-3,9	1,5
Araba/Álava	2,4	-0,9	2,9
Bizkaia	-1,0	-4,4	1,2
Gipuzkoa	-3,4	-4,5	1,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	5,9	0,4	7,8
Beste produktuak	-14,3	-12,8	-10,8
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-2,2	-1,7	0,4

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilerako arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurraldeka, 2020ko azaroko urte arteko salmentak, egutegiaren eraginak atera ondoren, % 2,4 igo dira Araban, eta beste lurraldeetan murriztu: Bizkaian % 1,0 eta Gipuzkoan % 3,4.

2020ko urtariletik azarora bitarteko metatutan, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak % 1,5eko igoera izan du. Elikagaietan metatutako salmentak % 7,8 igo dira 2019ko aldi beraren aldean, eta gainerako produktuen salmentak % 10,8 txikiagoak dira aurreko urteko aldi berean metatutakoak baino.

Urteko metatutan lurralde guztiak hazi dira: Araba % 2,9, Gipuzkoa % 1,4 eta Bizkaia % 1,2. Hori guztia, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko termino homogeneoetan.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako enplegatu-kopurua % 2,2 gutxitu da 2020ko azaroko aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 1,7, urtaro-eraginik gabeko terminoetan, aurreko hilaren aldean.

2020ko lehenbiziko hamaika hilabeteetako metatutan, enplegatu-kopurua % 0,4 hazi da 2019ko aldi beraren aldean.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloei COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, azaroko indizea laginaren % **90,24ko estaldurarekin** kalkulatu da –informazio hori abenduan gaindi jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62